PROBLEMAK

1. Adierazi zenbat denbora pasatu den kasu bakoitzean.

   8:20 etatik 11:00 etara

   22:30 etatik 00:45 etara

2. Honako baldintza hauek beteko dituen zenbakia bilatu.
   - Hiru baino handiagoa eta lau baino txikiagoa.
   - Hirutik hurbilago dago lautik baino.
   - 0,2 batuz gero, lautik hurbilago dago hirutik baino.

3. 40 kromotik erdiak Koldok hartu ditu. Uxuek, gelditzen zirenen laurdenak; Unaik, gelditutakoen herena eta Naroak geratzen zirenak. Zenbat kromo hartu ditu bakoitzak?

4. Hogeita bat metro dituen zutabe baten 2/3 margotu baditugu, zenbat faltatuko zaigu margotzeko?

5. Erlojuaren kontrako txirrindularitza-proban hauxe izan da sailkapena:

   Lehenengo heldu denak zenbat denbora atera die besteei? Egin taula berria adierazteko.

Tokia	Denbora
1.a	42 min 12 s
2.a	42 min 45 s
3.a	43 min 5 s
4.a	43 min 45 s

1.	2.	3.	4.
42 min 12 s			